



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

UDAL
**TXOS
TENA
2015**



**KULTUR POLITIKEN,
EUSKARAREN,
HEZKUNTZAREN,
GAZTERIAREN ETA
KIROLAREN KOORDINAZIOA**

8.2

EUSKARA
ETA
HEZKUNTZA

> Darabilbo

EUSKARA

Euskararen normalizazioa lortzea, hau da, gure hizkuntzaren ezagutza eta batez ere erabilera gehitzea dugu xede nagusia Udaleko Euskara zuzendariordetzan, esparru bitan: udalerrian eta udal administrazioan.

Helburuak hurrengoak dira:

- Udal administrazio elebidunerantz, euskara herritarrentzako zerbitzu hizkuntza gune guztietan ziurtatzea.
- Egunerako udal jardunean euskara lan-hizkuntza bihurtzeko bidean, hizkuntza eskakizuna lortua duten langileei lanerako trebatze saioak eskaintzea eta euskara langai eta bide izan dezatela lagundu.
- Udalak jendaurrean duen irudi korporatiboan eta kontratazio administratiboen arloan hizkuntza irizpideak finkatuta berauek betearaztea, euskararen presentzia eta eskakizuna handitze bidean.
- Derrigorrezko eskolaldian ari diren ume eta gaztetxoei eskola barruko programen osagarriak, batez ere ikasgelaz kanpoko jarduerak eskaintzea erabilera ez-akademiko naturalagoa sustatzeko.

- Gazteen ezagutza erabilera bihurtu dadin, beraien neurriko eta gustuko eskaintza kaleratu, teknologia berriei bereziki erreparatuta.
- Transmisioari dagokionez, umea mundura datorrenetik euskal inguru iraunkor baten beharra azpimarratu sentiberatze kanpainen bidez.
- AENOR Zerbitzuen Agiriari eustea.

GAUZATUTAKO JARDUERA NAGUSIAK

UDAL ADMINISTRAZIOAN

V. fasean (2013-2017) Udalak duen bitarteko nagusia langileen euskalduntze maila dugu, %43k egiaztatua du lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna eta beste %9ak dagokiona baino eskakizun bat gutxiago, Udalari dagokion lanpostuen derrigortasun indizea %36,3koa izanik.

Planaren V. faseko ardatz nagusiak hizkuntza irizpideen betearaztea da, bereziki kontratazio administratiboen esparruan, langileen formazioa lan jardunari dagokionez, Udalaren irudi korporatibo elebiduna eta herritarrekin euskarazko harreman idaztia zein ahozkoa bermatzea.

UDALERRIAN Hizkuntzaren transmisioa

Umea mundura datorren momentutik euskal inguru linguistiko iraunkor baten beharra azpimarratzeko Euskara Zuzendariordetzak hainbat sentiberatze kanpaina zabaldu du, Bizkaiko beste udalerrri batzuekin batera eta Alkarbide bilgunearen koordinaziopean:

- *Eman giltza*: Ume jaioberriak dituzten gurasoei zuzendutako sensibilizazio-kanpaina honen helburua familia-giroan euskararen erabilera sustatzea da.
- *D bitamina*: Eskolan sartzeko adina duten umeen (2 urtekoak) gurasoei zuzendua, irakaskuntzaren bidez euskararen transmisioa egiteko garrantziaz sensibilizatzeko eta euskarazko D eta B ereduak sustatzeko.
- *Nahi dudalako*: Batxilerreko ikasketak eta bereziki Lanbide Heziketa egingo duten ikasleei zuzendua, ikasketak euskaraz egiten jarrai dezaten animatzeko.
- *Euskara ikasteko laguntzak gurasoei*: Derrigorrezko eskolaldian seme-alabak dituztenei euskara-ikastaroen kostua ordaintzeko laguntza. Euskararen erabilera batez ere etxeko harremanetan sustatzea da programaren xedea.

Aurtengo onuradunak 234 izan dira.

Zerbitzuak euskaraz

- *Ikusi eta ikasi*: Aisialdia, kultura eta hezkuntza-proiektua uztartzen ditu, Bilboko umeei euskaraz ondo pasatzeko aukera eskaintzeko.
- *Harrapazank*: Bilboko udal instalazio ugartan eta Bilborock aretoan egiten den ekimen hau gazteei zuzendua dago, juniorrak eta seniorrak berezita. Gaztetxoan artean euskararen erabilera sustatzea du xede eta, era berean, gazte-jendearantzako kultur eskaintza handitzen du. Bereziki zaindu egin da gaztetxoan parte-hartzea, dantza eta musika modu aktiboan egin dute, hasierako kastin eta geroko ikastaroa-sormen lana-ikuskizuna, eta



> Harrapa Zank

programarako plazaratu den web guneak bisita ugari izan ditu.

- *Galdeketaun*: Lehiaketaren bigarren edizioa, gazte jendeari zuzenduta eta sakelako telefonoen bidez egiten dena. Galderak Bilbo eta euskal kultura batzen dituzte eta parte hartzaileen kopuruak nahikoa gairitu du blogen lehiaketarena. Partaidetza handitu egin da.
- *Biribilko*: Bilboko merkataritzan euskara sustatzeko plana: Aurtengo ekimen nagusia web gunearen handitzea, komunikazioa eta formazio ikastaroak, 157 partaiderekin.

Hizkuntzaren elikadura

- *Zinea euskaraz*: Gaurkotasun handiko filmak proiektatu dira, Tinko euskara elkartearen eskutik eta baita Irudi Biziak elkarteak emandakoak. Eskola-ordutegiaren barruan eskaintzen dira, hain zuzen, umeek pantaila handiko istorioekin euskaraz ondo pasatzeko aukera izan dezaten eta horretarako ohitura har dezaten.
- *Zortziko txikia*: Neska-mutikoak bertsolaritzaren mundura hurbiltzea da kontua, Bizkaiko Bertsozale Elkartarekin, Bizkaiko Ikastolen Elkartarekin eta Bizkaia Irratiarekin elkarlanean prestatutako zenbait jardueraren bidez, 32 ikastetxetan asteroko saioak eta irriti programa.

- *Narrazio guztiak*: Bilbo Zaharra euskaltegiarekin elkarlanean Joseba Sarrionandia euskal idazlearen *Narrazio Guztiak* obra osoa irakurri zuten ekainaren 5ean Arriaga antzokian gizarte sektore guztietako ordezkariak. Euskara prestijiatzeko ekimen honen aurreko astean hitzaldiak antolatu ziren idazlearen eta obraren inguruan interesa dutenentzat. Obra ikurra denez gero, hitzaldiak eta erakusketa antolatu da ekimenaren inguruan.

- *Ikasarrauna*: Gure kulturaren oinarrietako bat jokoak eta jolasak dira. Euskara Zuzendariordeak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin batera, programa bete betea eskaintzen die Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleei. Hezkuntzaren eremu formalean ez ezik, informalean ere euskararen erabilera sustatzen du bereziki arraun munduari dagokionez. Urtean guztira 90 saio, 3 topaketa, 12 ikastetxe.

- *Mikoleta ipuin lehiaketa*: Eskola-umeen artean euskaraz irakurtzea eta idaztea sustatzea da xedea, komunikazio-hizkuntza nagusia gaztelania den inguru batean. Parte-hartzaileen adinaren arabera lau kategoriatan banatzen dira idazlanak. 971 idazlan aurkeztu dira, denak Bilbon errolatutako neska-mutikoenak. Saritutako lan guztiekin liburua argitaratu da, urtero lez.

- *Mintzakide*: Jarraipena izan du programa honek, Ulibarri euskaltegiarekin elkarlanean gauzatzen



> EUSKARAREN EGUNA euskaldun berriei aitormena



> MIKOLETA XXVII IPUIN LEHIAKETA sarituak



> MIKOLETA XXVII IPUIN LEHIAKETA sarituen irakasleak

dena, non ikasturtean zehar 90 bikotetik gora izan dira partaide, beraien zaletasunen arabera jarduerekin, ekainean guztien arteko topaketa antolatu zutelarik. Helburua, Bilbon euskara ikasi baina hizkuntza erabiltzeko aukera handirik ez dutenei euskaraz bizitzeko leihoa zabaltzea.

- *Darabilbo*: Bilboko barruti guztietan euskararen erabilera zuzena suspertu nahi duen programaren bigarren edizioa, maiatz-abendua tartera zabaldu dena, 50tik gora izan dira ekintzak, parte hartze handia eta balorazio oso ona, Bilboko euskaltegien sarearekin elkarlanean burutu da.

Elkarteentzako diru laguntzak, programak edo zerbitzuak euskaraz eskaintzek

Udalerrian euskararen presentzia handiagoa izateko, hitzaldi-zikloak, aisialdi-jarduerak, ikastaro bereziak, argitalpenak, txangoak, programa informatikoak, literatur lehiaketak zein jarduera osagarriak antolatzen dituzten Bilbo guztiko talde eta elkarteekin lankidetzan dihardu Euskara Zuzendariordetzak.

2015ean 663.750.-eurokoa izan da diru-laguntzetan euskaraz zerbitzuak eman edo euskararen erabilerarako bidea eskaintzen duten elkarten artean banatutako diru-kopurua, guztira 94 programa.

Ekimen bereziak

Aipamen berezia merezi dute 2015ean Bilbon izan ziren ekitaldia bi: KORRIKA19ren amaiera, martxoaren 29an, dozenaka ekitaldi eta milaka lagun erakarri zituen batetik, eta bestetik, IBILALDIA erreken inguruan ospatu zela maiatzaren 31an jendez betetako zirkuituan.

Hitzarmenak


Hizkuntzaren elikadura eta kalitatearen irizpidearen arabera, Euskara Zuzendariordetzak hitzarmenak sinatu ditu 2015 urtean Euskaltzaindia, Labayru ikastegia, Euskara Elkarten Topagunea, Bertsozale Elkartea, Bizkaiko Guraso Elkartea, Euskal Herriko Ikastolak eta Suspergintzarekin, eta berauen bitartez hainbat programa eta ekimen gauzatu.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Urtero bezala, Bilboko Udalak ekitaldi ofiziala antolatu zuen abenduaren 1ean, eguna 3a izan arren egun horretan pilatzen diren ekitaldiak ez oztopatze arren. Aurtengo motiboa euskaldun berriena izan da eta adierazpen instituzionala izan da Euskadiko erakunde nagusien aldetik, Bilboko Udala barne. Udaletxeko ekitaldian, alkatea buru, guztiz bilbotar eta euskaldun berri diran Patxo Telleria eta Mikel Martinez izan

dira omenduak, antzerkiaren arloan egin duten urte askotako lanagatik. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatuta, Bilbon oraindik eraiki barik dagoen plaza edo kale bat euskaldun berriena bataiatzeko konpromisoa hartu du Udalak.

Euskararen Egunaren inguruan kanpaina abiatu dute herri erakundeek herritar euskaldunek administrazioarekin euskaraz egin dezaten txantxangorri baten irudia zabalduz ikur moduan. Hasiera baino ez da eta asmoa dago txantxangorriaren ikurra gizarteko beste sektoreetara zabaltzekoa.



> EUSKARAREN EGUNA txantxangorria, euskaraz egiteko keinua

Azkue Fundazioa

San Inazio auzoan dagoen Euskararen Etxeak burututako sustatze zeregin asko Azkue Fundazioaren barruan lotu dira, munduan zehar euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko asmoz, ezagutzen ditugun teknologiarik aurreratuenekin. Bilboko Udala Azkue Fundazioaren partaide da, hasiera hasieratik, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskaltzaindia, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatearekin batera.

Berbagune

Euskararen erabilerari dimentsio publikoa eman nahian laugarren edizioa antolatu da Berbagunea izeneko ekimena Bilboko Alondegian. Egun osoko jarduna urtarilaren 21ean, 1.600 lagun lau txandatan banaturik, emandako gai batzuen inguruko eztabaida izan dute seiko talde aldakorretan. Bertan izan dira bai oso aurpegi ezagunak bai hain ezagunak izan gabe parte hartzeko interesa adierazi dutenak.

ADIERAZLEAK

Eskola ordutako programetan parte hartu duten ikasleak	11.177
Mikoleta ipuin lehiaketara aurkeztutako ipuinak	971
Antolatutako sentiberatze kanpainen hartzaileak	8.350
Euskara ikasteko laguntzaren onuradunak	234
Ikusi eta Ikasi programaren ikusleak	6.861
Harrapa Zank programan ikusleak	1.349
Merkataritza Planean parte hartu duten establezimenduak	2.600
Diru-laguntzetan onartutako programak	94
Itzulitako testuen kopurua	150 MB (1.135.815.326 bytes)
Berarizko trebakuntzan parte hartu duten langileak	118



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

UDAL
**TXOS
TENA
2015**

